

Jagon jardunaldia

Laburpena.

Arazoak eta kezkek beste guztiaren gainetik nabarmentzeko joera badugu euskarari buruz ari garenean, baina jardunari ekin nahi nioke baikortasunerako oinarria ematen diguten hainbat gogoeta eginez.

Euskarazko komunikabideek, gure kasuan euskarazko irratiak, inoizko aukera aldi oparoena bizi du. Euskararen ezagutzak gora egin duela diote azken urteetan egin diren soziolinguistika azterketa guztiek, eta pozik egotekoa da hori. Egia da erabilerak sortzen duela kezka, eta kezkatzekoa da. Baina komunikabideek aukera aldia bizi dute, inoiz baino audientzia potentzial handiagoa baitute.

Euskadi Irratia eta *Gaztea* dira euskaraz gure taldeak dituen eskaintza nagusiak. Uneotan eskura ditugun azken audientzia neurketen arabera, bien artean ez dituzte urruti 300.000 entzuleak. Eta bada datu horrek adina azkenotan poztu nauen besterik ere: *Euskadi Irratia* eta *Gaztea* entzuten duten entzuleen laurdenak erraztasun gehiago du gaztelaniaz egiteko. Euskarara gerturatzeko erabiltzen dute, beraz, euskarazko komunikabidea.

Horiek guztiak horrela izanda ere, erronka eta kezka bat baino gehiago dugu mahai gainean:

Kezkatzen gaitu euskara zuzen erabiltzeak. Kazetari belaunaldi berriek, hizkuntza eremu oso euskaldunetatik etorrira ere, ez dute orain artekoen euskara maila eta oinarria. Erreferentzia jator faltak askotan esaldi traketsak eta okerrak erabiltzera garamatza.

Asko kezkatzen gaituen puntuetako bat euskararen zuzentasuna eta egokitasuna behar den moduan uztartzeko gaitasuna izatea. Zuzena izateari uko egin gabe, hizkuntza funtzionala erabiltzea ere erronka dugu: erabilgarria, komunikatzen duena, erakargarria. Hori lortzen ez badugu, alferrik dugu munduko hizkuntzarik zuzenena erabiltzea. Eskaintza zirrargarri ugari aurki ditzakete gure entzuleek erraz asko beste ulertzen dituen beste hizkuntzetan.

Guztia ziurrenik laburbil daiteke anbizio eta erronka zehatz batean: nola kontatu mundua, ez soilik Euskal Herria, mundua, hemengo hizkuntzan, hemengo betaurrekoek ematen duten bisio propioarekin, inguruan jazotzen den gehiena beste hizkuntza batzuetan gertatzen ari den den bitartean. Eta noski, nola egin interesgarri kontatzen dugun hori euskaldungoarentzat.

Iñaki Guridi, EITB Irrati taldeko zuzendariordea